

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2006/52/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko uztailaren 5ekoa, Koloratzaile eta edulkoratzaile ez diren elikadura-gehigarriei buruzko 95/2/EE Zuzentaraua eta Elikagaietan erabiltzen diren edulkoratzaileei buruzko 94/35/EE Zuzentaraua aldatzen dituen.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu horren ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Directiva 2006/52/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 5 de julio de 2006, por la que se modifica la Directiva 95/2/CE relativa a aditivos alimentarios distintos de los colorantes y edulcorantes y la Directiva 94/35/CE relativa a los edulcorantes utilizados en los productos alimenticios*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 204/10 de 26/07/2006)

2006/52/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko uztailaren 5koa

Koloratzaile eta edulkoratzaile ez diren elikadura-gehigarri buruzko 95/2/EE Zuzentaraua eta elikagaietan erabiltzen diren edulkoratzailei buruzko 94/35/EE Zuzentaraua aldatzen dituen

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren ikusi dute eta, batez ere, bere 95. artikulua,

Batzordearen proposamena ikusi dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ikusi dute ⁽¹⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz ⁽²⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Elikagaietan elikadura-gehigarriak erabil ahal izateko, Kontseiluaren 1988ko abenduaren 21eko 89/107/EE Zuzentaruaren II. eranskinean ezarritakoa bete behar dute. Zuzentaru horrek giza kontsumorako elikagaietan elikadura-gehigarri baimenduen alorrean estatu kideen legeriaren hurbilpena arautzen du ⁽³⁾.
- (2) 95/2/EE Zuzentaruak ⁽⁴⁾ Erkidegoan erabil daitezkeen elikadura-gehigarrien zerrenda ezarri, eta zein baldintzatan erabil daitezkeen zehazten du.
- (3) 94/35/EE Zuzentaruak ⁽⁵⁾ Erkidegoan erabil daitezkeen edulkoratzaileen zerrenda ezartzen du, eta zein baldintzatan erabili zehazten du.
- (4) 95/2/EE eta 94/35/EE Zuzentaruak onetsi zirenetik hona aurrerapen teknikoak egon dira elikadura-gehigarrien esparruan. Egoki da, beraz, zuzentaru horiek egokitu, eta aurrerapenok kontuan hartzea.
- (5) Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzak (EFSA) 2003ko azaroaren 26an emandako irizpen batetan oinarrituta, aldatu egin dira indarreko baimenak, nitrosaminen

maila ahalik eta baxuen mantentzeko, elikagaiei gehitzen zaizkien nitrato eta nitrotoen dosiak murriztuz, baina segurtasun mikrobiologikoa mantenduz. EFSAk nitrato eta nitrotoen dosiak legerian «gehitutako kantitatea» gisa ager daitezela gomendatzen du. Gainera, kontsideratzen du gehitutako nitrotoen kantitatea dela *C botulinum*-aren inhibizio jardura suspertzen duena, hondar-kantitateak baino gehiago. Indarrean dauden xedapenak aldatu egin behar dira, baimendutako gehieneko dosiak (EFSAk emandakoak) termikoki tratatutako eta ez tratatutako haragizko produktuetan, gaztan eta arrainetan, gehitutako kantitateak adieraz daitezkeen. Alabaina, eta salbuespen gisa, tradizioko erara egindako haragizko produktu jakin batzuen kasuan, gehieneko hondar-dosiak zehaztu behar dira, baldin eta produktu horiek behar bezala espezifikatu eta identifikatu badaude. Ezarritako dosiek giza elikaduraren batzorde zientifikoak 1990ean ezarritako eguneko irensketa onargarria (EIO) ez dela gaitutako bermatu behar dute. Zuzentaru honetan espresuki aipatzen ez diren produktuak, baina era berean egiten direnak (hau da, antzeko produktuak), 95/2/EE Zuzentaruaren 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera sailkatu daitezke, hala badagokio. Gaztaren kasuan, dosia gehitutako kantitate gisa ezarri behar da, gazta egiteko erabiliko den esnean. Nitratoa esne-gazura kendu eta ura gehitu ondoren gehitzen den prozesua erabiliz gero, dosia nitratoa zuzenean esnari gehitu izan balitzaio lortuko litzatekeen berdin-berdina izan behar da.

- (6) 2003/114/EE Zuzentaruak, 95/2/EE Zuzentaruaren aldatzen duenak, 2004ko uztailaren 1a baino lehenago E-214tik E-219rainoko gehigarrien (p-hidroxibentzoatoen) eta beren gatzak erabilera-baldintzak berraztertzea eraman zituen Europako Batzordea eta EFSA. EFSAk p-hidroxibentzoatoen segurtasunari buruzko informazioa aztertu zuen, eta irizpena eman zuen 2004ko uztailaren 13an. EFSAk gorputz-pisuko kilo bakoitzeko 0-10 mg-ko EIO globala ezarri zuen azido p-hidroxibentzoikoaren eta bere sodio gatzak ester metilikoaren eta etilikoaren baturarako. EFSAk kontsideratu zuen propilparabena ez dela EIO global horretan sartzekoa, metilparabena eta etilparabena ez bezala, eraginak dituelako arratoi gazteen sex-hormonen eta arren ugalketa-organoen gainean. Horrenbestez, EFSAk ezin izan du propilparabenaren kasurako EIOik gomendatu,

¹ EO C 255, 2005.10.14koa, 59. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko urriaren 26koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea). Kontseiluaren Erabakia, 2006ko ekainaren 2koa.

³ EO L 40, 1989.2.11koa, 27. or. Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren 1882/2003 (EE) Erregelamenduak (EO L 284, de 31.10.2003, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaruak.

⁴ EO L 61, 1995.3.18koa, 1. or. Azken buruan 2003/114/EE Zuzentaruak (EO L 24, 2004.1.29koa, 58. or.) aldatu zuen Zuzentaruak.

⁵ EO L 237, 1994.9.10ekoa, 3. or. Azken buruan 2003/115/EE Zuzentaruak (EO L 24, 2004.1.29koa, 65. or.) aldatu zuen Zuzentaruak.

- ezin izan delako nabaritutako eragin kaltegarririk gabeko mailarik zehaztu (*no observed adverse effect level*, NOAEL). 95/2/EE Zuzentarautik ezabatu beharrekoak dira E-216 propil p-hidroxibentzoatoa eta E-217 propil sodio p-hidroxibentzoatoa. Era berean, bertan behera utzi behar da p-hidroxibentzoatoen erabilera osagarri dietetiko likidoetan.
- (7) Batzordearen 2004/374/EE Erabakiak ⁽¹⁾ bertan behera utzi zuen algetatik eta goma jakin batzuetatik eratorritako elikadura-gehigarri gelifikatzaileak zituzten gelatinazko minikapsulen merkaturatzea eta inportazioa; asfixia sortzeko arriskuagatik. Erabaki hura berraztertzearen ondorioz, elikadura-gehigarri gelifikatzaile batzuk kendu behar dira gelatinazko minikapsuletan.
- (8) Giza elikaduraren batzorde zientifikoak eritritolaren segurtasunari buruzko informazioa aztertu zuen, eta irizpena eman zuen 2003ko martxoaren 5ean. Batzordearen aburuz, eritritolaren erabilera elikadura-gehigarri gisa onargarria da. Gainera, Batzordeak aipatu zuenez, eritritola libragarria da, baina beste poliol batzuk baino dosi handiagotan. Eritritolak elikagai sorta zabal batentzako garrantzitsuak diren propietate teknologiko ez edulkoratzaile asko ditu, nola gozogintzarako, hala esnekientzako ere, esaterako: zapo-indartzaile, euskarri, hezetaile, egonkortzaile, lodigarri, karga-agente eta bahitzaile. Eritritolaren erabilera beste poliolen elikadura-aplikazio berberetan baimendu daiteke. Era berean, aldatzekoa da 94/35/EE Zuzentaraua; izan ere, gaur egun baimenduta dauden beste poliolen antzera, eritritola xede edulkoratzaileekin ere erabil daiteke.
- (9) Giza elikaduraren batzorde zientifikoak soja-haziaren hemizelulosaren segurtasunari buruzko informazioa aztertu zuen, eta irizpena eman zuen 2003ko apirilaren 4an. Batzordearen aburuz, soja-haziaren hemizelulosaren erabilera onargarria da zenbait elikagaietan, kantitate jakin batzuetan eskaera egiten direnekiko. Horrenbestez, onar daiteke gehigarri honen erabilera zenbait xedetarako. Alabaina, alergia dutenei aukera gehiago ematearren, ez da baimendu behar elikagai ez prozesatuetan, beti ere soja-haziaren hondakinik aurkitzea espero ez bada. Dena dela, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko martxoaren 20ko 2000/13/EE Zuzentarauak, elikagaien etiketatze, aurkezpen eta publizitatearen alorrean estatu kideen legeriaren hurbilpena arautzen duenak ezarritakoari jarraituz, soja-haziaren hemizelulosa duten produktuaren kontsumitzaileei jakinaraztea komeni da ⁽²⁾.
- (10) EFSAk etilzelulosaren segurtasunari buruzko informazioa aztertu zuen, eta irizpena eman zuen 2004ko otsailaren 17ean. EFSAk etilzelulosa giza elikaduraren batzorde zientifikoak ezarritako zelulosa modifikatuentzako EIO global «ez espezifikatua» sailkatzea erabaki zuen. etilzelulosa elikadura-osagarrietarako eta aromatizatzaile kapsulatuetarako erabiltzen da bereziki. Ondorioz, baimentzekoa da etilzelulosaren erabilera, beste zelulosa batzuen baldintza berberetan.
- (11) EFSAk pullulanaren segurtasunari buruzko informazioa aztertu zuen, eta irizpena eman zuen 2004ko uztailaren 13an. Onargarritzat jo zuen pullulanaren erabilera kapsula eta konprimatuta ematen diren elikagai-osagarriak eta hatsa freskatzeko xafla itxurako mikropilulak estaltzeko. Horrenbestez, egoki da erabilera horiek baimentzea.
- (12) EFSAk terbutilhidrokinonaren (TBHQ) segurtasunari buruzko informazioa aztertu zuen, eta irizpena eman zuen 2004ko uztailaren 12an. Norberaren gorputz-pisuko kilo bakoitzeko 0-0,7mg-ko EIO ezarri zuen. Onargarritzat jo zuen bere erabilera zenbait elikagaitan, kantitate jakin batzuen mugen barruan. Horrenbestez, onargarria da gehigarri horren erabilera.
- (13) Giza elikaduraren batzorde zientifikoak almidoi oktenilsukzinato aluminikoaren segurtasunari buruzko informazioa aztertu zuen, eta irizpena eman zuen 1997ko martxoaren 21ean. Batzordearen aburuz, onargarritzat jo liteke gehigarri honen erabilera bitaminen eta karotenoide mikrokapsulatuetan Horrenbestez, onargarria da bere erabilera.
- (14) Esne garratzezko gazta egiteko sodio karbonato azidoa (E-500ii) gehitzen zaio esne pasteurizatuari, azido laktikoak pH egokiko baldintzetan sortzen duen garratzasuna gordetzearen, eta hartara heltze-kultiboen hazkuntzarako baldintza egokiak sortzeko. Horrenbestez, onargarria da sodio karbonato azidoaren erabilera esne garratzezko gaztan.
- (15) Gaur egun, baimentzen da sorbatoen (E-200, E-202 eta E-203) eta bentzoatoen (E-210etik E-213ra) nahastura baten erabilera ganba egosiak kontserbatzeko. Onargarria da gehigarri horien erabilera oskoldun eta molusku egosi guztietan.
- (16) E-551 silizio dioxidoaren erabilera baimentzen da elikadura-koloratzaileen euskarri gisa, % 5eko dosiraino gehienez. Silizio dioxidoaren erabilera E-171 (titanio dioxido) eta E-172 (burdin oxido eta hidroxidoak) elikagai-

¹ EO L 118, 2004.4.23koa, 70. or.

² EO L 109, 2000.5.6koa, 29. or. Azken buruan

2003/89/EE Zuzentarauak (DO L 308, 2003.11.25koa, 15. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

koloratzaileen euskarri gisa ere baimen daiteke, baina pigmentuarekiko % 90eko dosiraino gehienez.

(17) 95/2/EE Zuzentarauak mugatu egiten du I. eranskinean adierazten dituen gehigarrien erabilera «Pain courant français» deituriko tradizioko erara egindako frantziar ogian. Murrizpen berbera aplikatu behar da frantsesaren antzekoa den tradizioko erara egindako hungariar ogian. Onargarria da azido askorbikoa (E-300), sodio askorbatoa (E-301) eta kaltzio eta disodio EDTA (E-385) hungariar gibel-pateetan.

(18) Eguneratu beharra dago oskoldun egosietan, mahaiko mahatsetan eta litchietan erabiltzen diren sulfitoei (E-220tik E-228ra) buruz indarrean dauden xedapenak.

(19) Estatu kide batek eskatuta, eta giza elikaduraren batzorde zientifikoaren 2003ko martxoaren 5eko irizpenaren arabera, 89/107/EEE Zuzentarauari jarraiki nazio-mailan dagoneneko baimenduta dagoen 4-hexilerresortzinolaren erabilera baimentzekoa da baita Erkidego osorako.

(20) 95/2/EE Zuzentaruaren erabilitako terminologia moldatu beharrekoa da, hartara kontuan har ditzan 1989ko maiatzaren 3ko Kontseiluaren 89/398/EEE Zuzentaruak, Elikadura berezietarako elikagaien alorrean estatu kideen legeriaren hurbilpenari buruzkoa⁽¹⁾, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 10eko 2002/46/EE Zuzentaruak, Elikadura-osagarrien alorrean estatu kideen legeriaren hurbilpenari buruzkoa⁽²⁾, eta Batzordearen 1999ko martxoaren 25eko 1999/21/EE Zuzentaruak, Erabilera mediku berezietarako elikagai dietetikoei buruzkoa⁽³⁾.

(21) Horrenbestez, aldatu beharrekoak dira 95/2/EE eta 94/35/EE Zuzentaruak.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

95/2/EE Zuzentaruari aldaketa hauek egingo zaizkio:

1) Lehen artikuluko 3. paragrafoan, a) idatz-zatia honako testuarekin ordeztuko da:

«c) “euskarriak”, disolbatzaile euskarriak barne, errazago erabiltzeko eta aplikatzeko asmoz elikadura-gehigarriak edo

aromatizatzaileak disolbatzeko, diluitzeko, sakabantzeko, edo beste era batera fisikoki aldarazteko gaitasuna duten substantziak, beti ere haien funtzioa aldatu gabe, eta berez inolako eragin teknologikorik sortu gabe;».

2) Hirugarren artikuluko 2. paragrafoan, «titia kentze garairako elikagaiak» hitzen ordeztuz, «laboreetatik eratorritako elikagaiak eta haurrentzako elikagaiak» jarriko da.

3) Eranskinak Zuzentaru honen I. eranskinaren arabera aldatuko dira.

2. artikulua

94/35/EE Zuzentaruaren eranskina Zuzentaru honetako II. eranskinari jarraiki aldatuko da.

3. artikulua

1. Estatu kideek indarrean jarriko dituzte zuzentaru honetan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren xedapen legalak, arauzkoak eta administratiboak, beranduenez 2008ko otsailaren 15erako, honako xedek lortu asmoz:

a) Zuzentaru honekin bat datozen produktuen merkaturatzea eta erabilpena baimentzea, beranduenez ere 2008ko otsailaren 15erako;

b) Zuzentaru honekin bat ez datozen produktuen merkaturatzea eta erabilpena debekatzea, beranduenez ere 2008ko abuztuaren 15erako.

Alabaina, Zuzentaru honekin bat ez datozen, eta 2008ko abuztuaren 15a baino lehenago merkaturatutako eta etiketatutako produktuak merkaturatu ahal izango dira izakinak agortu arte.

Estatu kideek berehala emango diote Batzordeari xedapen legalak, arauzkoak eta administratiboak biltzen dituen testuaren berri, eta horrekin batera, baita xedapen horien eta zuzentaru honen arteko korrespondentzia-taula ere.

2. Estatu kideek 1. paragrafoak aipatzen dituen xedapen legalak, arauzkoak eta administratiboak onartzen dituztenean, xedapen horiek zuzentaru honen erreferentzia bilduko dute, edo erreferentzia horrekin agertuko dira haren argitalpen ofizialean. Estatu kideek beraiek ezarriko dituzte aipaturiko erreferentzien modalitateak.

4. artikulua

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeitau egunera jarriko da indarrean zuzentaru hau.

5. artikulua

Zuzentaru honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon egina, 2006ko uztailaren 5ean.

¹ EO L 186, 1989.6.30ekoa, 27. or. Azken buruan 1882/2003 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen Zuzentaruak.

² EO L 183, 2002.7.12koa, 51. or.

³ EO L 91, 1999.4.7koa, 29. or. 2003ko Atxikitze-aktak aldatu zuen Zuzentaruak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

<i>Europako Parlamentuaren</i>	<i>Kontseiluaren</i>
<i>izenean</i>	<i>izenean</i>
<i>Presidentea</i>	<i>Presidentea</i>
J. BORRELL FONTELLES	P. LEHTOMÄKI